

Marrazketa, zinema eta argazkigintza, Liburuaren Egunaren karietara Montehermosok antolatu dituen topaketa-lantegien ardatz

Gaurtik apirilaren 30era bitartean Montehermosoko Dokumentazio Zentrorra doazenek liburu bat jasoko dute opari

“Erreferentziak” erakusketa zikloak artearen eta gastronomiaren arteko harremana izango du gaitzat oraingoan

Beste urte batez, Montehermosoko Dokumentazio Zentroak bat egingo du Liburuaren Egunarekin, topaketa-lantegiak, bookcrossing ekintza bat eta “Erreferentziak” erakusketa zikloaren beste edizio bat antolatuta; zikloak artearen eta gastronomiaren arteko harremana izango du gaitzat oraingoan.

Bosgarren urtez jarraian, Dokumentazio Zentroak bat egingo du museoetako eta arte eta kultura zentroetako beste 56 liburutegirekin, apirilaren 20tik 25era bitartean kaleak liburuz betetzeko. Liburuak jasotzen dituztenek irakurtzea eta ondoren munduko beste leku batean askatzea da asmoa.

Topaketa eta lantegien barruan, 7 eta 12 urte bitarteko umeentzako bi jarduera sartu dira, zinemara eta argazkigintzara hurbiltzeko. Maiatzaren 5ean, “Zinemaren mundura hurbiltzea” izango dugu. Parte-hartzaileak zazpigarren artearen jatorriraino joango dira, *flip book* dibertigarri bat eginez, irudiak sortu eta mugimendua emanaz, eta azkenean “filma” bihurtuko da.

Maiatzaren 26an, argazkigintza estenoapeikoa landuko da. Pote birziklatuak baliatuz kamera bat nola egin irakatsiko da lantegian. Irudiak hartu eta errebelatuko dira, argazkigintzaren printzipioak azaltzeko.

Bestetik, marrazketa eta ilustrazioa maite duten 16 urtetik gorakoentzako bi lantegi egingo dira; aurretiazko ezagutza izan beharko dute. Maiatzaren 12an, 11:30etik 13:30era, Mikel Valverde izango da irakaslea: ilustrazioek istorioak kontatzeko dituzten aukera praktikoak azalduko ditu.

Maiatzaren 19an, 11:30etik 13:30era, karikaturari buruzko lantegia emango du Pernan Goñik: erretratua, karikatura, ideien pertsonifikazioa eta umorea landuko dira.

Denetan lekuak mugatuak dira, beraz, aurretik izena eman beharko da, Montehermosoko informazio-zerbitzuan: 945 161830 telefonoa – info.montehermoso@vitoria-gasteiz.org

Orobat, apirilaren 23tik ekainaren 30era, “Erreferentziak” erakusketa bibliografikoa ikusi ahalko da Dokumentazio Zentroan; seigarren edizioak artearen eta gastronomiaren arteko harremana izango du gaitzat. Artearen mundua ez dago bizitzaren eta kulturaren beste adierazpen batzuetatik aparte, ezta gastronomiatik ere. Historian zehar, arteak eta gastronomiak elkarri begiratu diote. Gure funtsen hautaketak horretaz pentsatzeko aitzakia eman nahi du.

El dibujo, el cine y la fotografía, ejes de los encuentros-talleres que Montehermoso organiza con motivo del Día del Libro

Todas las personas que visiten el Centro de Documentación de Montehermoso, entre hoy y hasta el 30 de abril, recibirán un libro de regalo

El ciclo de exposiciones “Referencias” abordará en esta ocasión la relación entre Arte y Gastronomía.

Un año más, el Centro de Documentación de Montehermoso se une a la celebración del Día del Libro con encuentros-talleres, la liberación de book-crossing, y una nueva edición del ciclo de exposiciones bibliográficas “Referencias” que en esta ocasión mostrará la relación entre el arte y la gastronomía.

Por décimo año consecutivo, el Centro de Documentación se une a otras 56 bibliotecas de museos y centros de arte y cultura para inundar las calles de libros del 20 al 25 de abril. La intención es que quienes los recojan disfruten de su lectura y vuelvan a liberarlos en otro punto distinto del mundo.

El programa de encuentros y talleres acoge dos actividades dirigidas a niños y niñas, de 7 a 12 años, que quieran acercarse al mundo del cine y la fotografía. El 5 de mayo habrá un “Acercamiento al mundo del Cine”. Los y las participantes se adentrarán en los orígenes del séptimo arte, creando imágenes y dotándolas de movimiento mediante la realización de un divertido Flip Book, que al final se transformará en una “película”.

El segundo encuentro será el 26 de mayo y estará dedicado a la fotografía estenopeica. En el mismo se enseñará cómo hacer una cámara con botes reciclados. Se tomarán y revelarán imágenes mostrando los principios de la fotografía.

Además, dirigidos a mayores de 16 años, se organizarán dos talleres para personas amantes del dibujo y la ilustración que cuenten con conocimientos previos. En el primero, el 12 de mayo de 11:30 a 13:30, se trabajará la ilustración de la mano de Mikel Valverde, explorando las posibilidades prácticas de las ilustraciones como herramientas para contar historias.

El sábado 19 de mayo, de 11:30 -13:30, habrá un taller sobre caricatura con Pernan Goñi en el que se trabajará el retrato, la caricatura, la personificación de las ideas y el humor.

Todos los encuentros y talleres tienen plazas limitadas por lo que es necesaria la inscripción previa a través del servicio de información de Montehermoso: tel. 945 161830 – info.montehermoso@vitoria-gasteiz.org

Asimismo, del 23 de abril al 30 de junio se podrá disfrutar en el Centro de Documentación de la muestra bibliográfica “Referencias” que en su sexta edición se centra en la relación entre el arte y la gastronomía. El mundo del arte no es ajeno a ninguna manifestación de la vida y de la cultura y, por tanto, tampoco a la gastronomía. A lo largo de la historia, el arte y la gastronomía se han mirado entre sí. Una selección de fondos servirá de excusa para pensar en ello.